

IRAGARKIA

2022ko abuztuaren 24an Udalak egindako Osoko Bilkuran, ondoan eta idatzirik dagoen akordioa onartu zen:

---“6. 2022/19 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-GEHIGARRIAK (KONTSULTAKO TEILATUA; HAURTZAINDEGIKO OBRAK). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateordeak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Ez dagoela kreditu nahikorik gastuen partida batzuetan inbertsioak egiteko.
- Martxoaren 14ko 62/2022 Alkatezaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2021eko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak 2022ko abuztuaren 22an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, kreditu-gehigarriak, inbertsioak egin ahal izateko. Aipatzen du ondoko hauek direla gehigarria behar duten gastu-partidak:

- 1-3121-62200. Kontsultategiko teilatua birmoldatzea. 5.000,00 €.
 - 1-3231-62200. Haurtzaindegiko obrak. 1.038,42 €.
- Zenbatekoa, guztira: 6.038,42 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 6.038,42 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2022/19 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-gehigarriak).
2. Jendurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.
3. Ohartaraztea ezen, jendurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenerari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.”-----

Argitaratzen da aipatutako ondorioetarako.

Bera, 2022-08-27.
SINADURA DIGITALA.
ALKATE EGINKIZUNETAN ARI DEN ALKATEORDEA,
J. Esteban Aguirre Zubieta.